Lantegi Batuak
Ehuneko ehun gai · Cien por cien capaces




Nueva edición del Método de Perfiles
— p. 3



## Akademia egokitua
— 5. orr.



Ezagutu — p. 5



Las personas avanzan hacia el empleo
— p. 5




# LanHotsa

## Lantegi Batuak Euskaraldiarekin
— 10. orr.

Nº 60
DICIEMBRE
—2022

## ¿Cuidamos el planeta?

Para recibir Lan Hotsa por e-mail, escríbenos a:
**comunicacion@lantegibatuak.eus**
Indica tu nombre y apellidos y una dirección de correo electrónico.

# Editoriala

## EDITORIAL

Estamos llegando al final del año, y como organización en constante evolución, no paramos de incorporar novedades. En esta ocasión, hablamos de la redefinición del **modelo de gobernanza**, con una nueva estructura de los órganos de gobierno, con el objetivo de que podamos abordar mejor los retos presentes y de futuro. Volvemos a lanzar **nuestra academia adaptada** para apoyar los procesos formativos de las personas con discapacidad intelectual que quieren presentarse a unas oposiciones públicas.

Todas estas iniciativas, así como la continua mejora de los procesos, están enfocadas en el objetivo principal de la organización. De tal forma que las personas con **discapacidad intelectual** puedan ir evolucionando hacia una mayor autonomía, tanto en su desarrollo laboral como en el social. Para ello un indicador clave son **las promociones y transiciones** desde el Servicio Ocupacional, bien a centro especial de empleo, bien a empresas ordinarias.

No podemos olvidar, que todos estos objetivos se logran gracias al **equipo de profesionales** que componen Lantegi Batuak, un grupo de mujeres y hombres que comparten un proyecto común, que en su día a día se esfuerzan por realizar sus actividades de la forma más profesional, colaborando entre sí para lograr que los retos que se nos presentan se puedan llevar a cabo, incluso en los momentos más complicados.

Por último, os animamos a conocer en esta revista a un grupo de personas que comparten una afición como es el baloncesto y que, seguro, disfrutan compartiendo momentos juntos como **equipo, componente clave en este deporte**, tanto para estar unidos en las victorias como en las derrotas.

Trabajando en equipo, cualquier reto que se nos pueda presentar, podremos afrontarlo, tal y como hemos ido haciendo durante casi cuarenta años en nuestra organización.

# Laburrak

### Bisitatzen gaituzte

Bogotako Pontificia Universidad Javeriana-ko ikasleen bisita jaso genuen urriaren 4an.



Deustuko Unibertsitatean ikastaro bat egiten ari ziren eta Lantegi Batuak ezagutu nahi izan zuten, gure kudeaketa eta garapen soziolaboraleko eredua. Gainera, gure industria-zentroetako baten egunerokoa ezagutzeko aukera izan zuten, Sondikakoa, hain zuzen ere.



Azaroaren 9an, Kolonbiako adimen-urritasuna duten pertsonek Sondikako zentroa ere bisitatu zuten, Salazar y Herrera Unibertsitate Erakundeak sustatutako nazioarteko mugikortasun-proiektu baten barruan, gure garapen soziolaboralaren eredua eta zentroaren funtzionamendua ezagutzeko.

Athletic Clubeko Oscar De Marcos eta Gorka Guruzeta Abadiñoko Txibila zentroan izan ziren joan den urriaren 27an.

### GIVE proiektua





Urriaren 28an, eztabaida-talde batean antolatu eta parte hartu genuen, "Enplegua, prestakuntza, nazioarteko mugikortasuna eta desgaitasuna: oztopoak, laguntzak eta aukerak" izenarekin. Lantegi Batuak-en aldetik, nazioarteko mugikortasunean parte hartu zuen ikasle ohi batek, Zerbitzu Okupazionaleko prestakuntza dualeko ikasle batek, prestakuntzako kudeaketa-teknikari batek, nazioarteko mugikortasun batean parte hartu zuen pertsona eta senideei laguntzeko teknikari batek. Jardunaldian gurekin izan ziren Deustuko Unibertsitatea, Deustuko Salestarrak, IVAC, Mondragon Unibertsitatea, Talleres Gallarreta, MFS, EGAZ Txorierri eta GAUDE.

### Enplegu Azokak



Urriaren 6an, Orientazio eta Hautaketa taldea Megaparkeko Fashion Outlet-ek antolatutako Emplea 22 topaketara joan zen, Lantegi Batuak-ek eskaintzen dituen lan-aukeren berri emateko.

Aste berean, Mungiako Udala eta Mungialdeko Behargintzak antolatutako Mungilan 2022an, parte hartu dugu. Auchan, Arteche, GB Corporación eta Belako Lanak elkarteetako ordezkariekin batera, enpresen beharraz eta lan bila dabiltzanei eskaintzen diegunaz hitz egin dugu.



### Jornadas

El 14 de octubre participamos en un nuevo encuentro de la Red Compartir. En él, Martín Muñoz presentó nuestra experiencia en la obtención de la certificación de AENOR sobre Cumplimiento. Además, Isabel Gutiérrez y Xabier Madariaga participaron en la reflexión sobre los retos presentes y futuros de la propia red.

El 9 noviembre Iratxe Agilar, SO de Zornotza, y Biotz Zulueta impartieron una charla en la UPV/EHU a alumnado del Grado de Educación Social, Presentaron Lantegi Batuak y resolvieron dudas sobre la actividad laboral, las metas y objetivos de formación, las oportunidades laborales y el empleo con apoyo, entre otras.

El de 15 noviembre Iraia Zornoza, Josu Pujana, Andoni Garai y Naiara Zugazaga participaron en el World Café organizado por el Foro ECA, donde se abordó la empleabilidad de las personas con discapacidad desde diferentes perspectivas.

El 21 de noviembre participamos en el seminario de actualización, dirigido a personal de los Servicios de Prevención, "Patología de hombro y codo". Nuestro médico Miguel Martín y el enfermero Javier Alba intervinieron en los apartados de exploración y establecimiento de medidas organizativas y de adaptación. La actividad fue organizada por la Sociedad Vasca de Medicina del trabajo, la Academia de Ciencias médicas y Osalan.

Los días 24 y 25 de noviembre participamos en el X Congreso anual GEAccounting, Contabilidad social para la sostenibilidad. Ramón Bernal moderó la mesa "Valor social generado por empresas inclusivas", en la que intervino Álvaro Arrizabalaga. Beloke Alea, por su parte, participó en la mesa sobre "Entidades singulares" hablando sobre la contabilidad social aplicada a la contratación pública.

# LecturaFácil

LF

## Incorporamos las competencias digitales a nuestro Método de Perfiles

El Método de Perfiles es una herramienta muy importante en Lantegi Batuak.

Sirve para diseñar los apoyos individualizados que damos a las personas con discapacidad.

Con este método adecuamos la tarea a la persona.

Así favorecemos sus habilidades y competencias.

En septiembre hemos actualizado el manual
para adaptarnos a las nuevas necesidades.

La novedad más importante es que tiene en cuenta las competencias
y las necesidades de la persona en nuevas tecnologías.

Vamos a hacer una prueba piloto con algunas personas
para analizar este nuevo apartado de la herramienta.

Así podremos mejorar la parte de competencias digitales si es necesario.

Otras novedades son que hemos añadido elementos para la Lectura Fácil
y hemos editado el manual en euskera e inglés.




## Damos nuevos servicios

En **Gestión Documental** hacemos trabajos
para clientes como Diputación Foral de Bizkaia,
Gobierno Vasco, el Museo de Bellas Artes de Bilbao
y el Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia.

Los trabajos que hacemos en Gestión Documental
son digitalizar documentos, organizar archivos, etc.



El **Servicio de limpieza** ha empezado a limpiar
la sede de Price Waterhouse Cooper de Bilbao.

En Igorre seguimos limpiando
las calles, parques, jardines
y zonas deportivas que hay en la calle.

También hacemos el mantenimiento
de las zonas verdes
del Parque Comercial Megapark.



# Berriak

## Praktika onak partekatzen ditugu aniztasunaren eta ongizatearen kudeaketan

Urriaren 20an, Euskalitek Kudeaketa Aurreratuaren Asteko Kongresuan parte hartzera gonbidatu gintuen. Oraingo honetan, gure esperientzia eta jardunbide egokiak partekatzeko deia egin ziguten Pertsonei buruzko jardunaldian, zehazki, Aniztasunaren eta ongizatearen kudeaketari buruzko jardunbide egokiak izeneko mahaian. Bertan, pertsonen kudeaketan funtsezkoak diren alderdiei buruz hitz egiteko aukera izan genuen, hala nola aniztasunaren arretari, pertsonen parte-hartzeari, zahartze-prozesuei eta belaunaldien erreleboari buruz, baita bizi-egoera konplexuetan laguntzeari buruz ere.



Bilboko Euskalduna Jauregian ospatu zen jardunaldi honetan, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa/Ferraguinox eta Osarten Kooperatiba Elkartearekin partekatu genuen mahaia.

## Cambios en nuestro modelo de gobernanza






Este año, se ha llevado a cabo una reflexión del actual modelo de gobernanza de Lantegi Batuak. El objetivo es dotar de mayor eficiencia al Patronato y al Consejo Ejecutivo, que son los órganos de gobierno de Lantegi Batuak. Asimismo, seguirán aportando una visión a largo plazo sobre temas relacionados con la misión y la orientación futura de Lantegi Batuak.

A corto plazo, el Consejo tiene como objetivo definir las directrices estratégicas del periodo 2024-2026. Las directrices orientan la reflexión, sientan las prioridades y establecen los límites para desarrollar un nuevo Plan Estratégico.

En este contexto, se han creado 3 Comisiones que ya están en funcionamiento: Gobernanza, Misión y Negocio. Uno de sus objetivos es aumentar también la comunicación entre el Consejo y la Dirección, lo que mejorará también la transparencia.

# Pertsonak

## Pertsonak aurrera doaz enplegurantz: erritmoa berreskuratzen dugu



2021ean eta 2022an, Lantegi Batuak-eko 63 pertsona Zerbitzu Okupazionalaren erabiltzaile izatetik gure Enplegu-zentro Berezietako langile izatera igaro ziren, baita enpresa arruntetara ere, Lagundutako Enplegua gure programarekin.

Bi urte hauetan, adimen-desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunera bideratutako laguntzak eta prestakuntza-ekintzak indartu dira. Bai industria- eta zerbitzu-arloaren berezko jardueretan, bai enpresa arrunten lan-inguruneekin zerikusia dutenetan.

Prozesu horri esker, gure itxaron-zerrendan zeuden desgaitasun intelektuala duten 39 gizon eta 24 emakume Zerbitzu Okupazionalean plaza bat lortzeko aukera izan zuten. Era berean, horrek aukera ematen du itxaron-zerrenda teknikoa izateko eta plaza horietako batera iristeko itxarote-denboren batez bestekoa hilabete baino gutxiagora murrizteko.

Horrela, pandemia aurreko garapen soziolaboralaren erritmoa berreskuratzen dugu: pertsona guztien lanaren emaitza da, bai ibilbide soziolaboralean urrats garrantzitsu hori ematen dutenena, bai prozesu osoan laguntzen dutenena, hori posible izan dadin.

**¿Quieres conocer sus experiencias?**

www.youtube.com/watch?v=bK3tdcA2I8Y

## Personas 100% capaces y empresas comprometidas

En los últimos meses, varias personas han dado otro paso en su desarrollo profesional. Acompañadas por el equipo de nuestro programa de Empleo con Apoyo, han empezado a trabajar en varias empresas de Bizkaia.

Empresas que han apostado por una contratación responsable y que impulsan la inclusión laboral.

Son los casos de Katherine, Irache, Javier, Aitor o Ander, entre otros, que han empezado a trabajar en empresas como Eika, Salesianos Deusto, Bihotz Gazte Ikastola, Decathlon, Leroy Merlin o IMQ.






## Akademia Egokituari ekin zaio berriro



Gure Akademia Egokitua martxan jarri dugu berriro. Joan den azaroaren 7an, berriro ireki zituen ateak, pertsonei Bilboko Udalaren etorkizuneko Enplegu Publikoaren Eskaintza prestatzen laguntzeko helburuarekin, 2023ko lehen hiruhilekoan.

Oraingo honetan, desgaitasun intelektuala duten 40 emakume eta 41 gizon joaten dira Lagundutako Enpleguaren programako gure instalazioetan Sondikan eta Elekbarrin ematen diren eguneroko eskoletara. Horiek guztiak prestatzen ari dira Bilboko Udalak eskainiko dituen mendekoen 4 plazetako bat lortzeko.

Metodologia aurreko edizioetakoaren antzekoa da: aurrez aurreko eskoletarako material tradizionalak tresna digital eta gamifikatuekin konbinatzen dira. Gainera, azken horietara mugikorraren bidez sar daitezke ikasleak, eskolatik kanpo eta modu autonomoan praktikatzen jarrai dezaten. Eduki guztiak irakurketa errazean daude.

Akademiara joaten diren pertsonez gain, beste 26 pertsona ari dira laguntza birtuala jasotzen. Horiek eskura dituzte materialak, eta aldiro-aldiro jasotzen dituzte urrutiko laguntzak. Era berean, gainerako interesdunei prestakuntza-plataformaren bidez ere ematen zaie laguntza.

# BerriakServicios




## Implementamos un gestor de rutas en nuestros transportes

En septiembre comenzamos a implantar un gestor de rutas en nuestros servicios, para gestionar nuestra flota de vehículos. Nos va a permitir optimizar nuestros servicios de entrega y recogida, así como reducir el número de kilómetros a realizar por los vehículos y dar una respuesta de entrega digital a nuestros clientes.

Por otro lado, facilitará la incorporación de personal nuevo y ayudará en el desempeño del servicio día a día, con el trazado de rutas mediante GPS.

Este gestor se pone en marcha en todas las rutas de nuestros servicios de Transporte, así como en nuestros servicios de alquiler de ayudas técnicas Laguntek, de comida a domicilio Etxejan y de destrucción documental.

Tras su implantación paulatina durante estos meses, estará operativo para el primer trimestre de 2023.



## Zugaztelekiko lankidetza

Urritik, gure dokumentu-kudeaketako taldea bi proiektutan ari da lanean Zugaztelekin, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde publikoarekin. Batetik, dokumentazio fisikoa eta digitala berrantolatzea, irisgarritasuna eta erabilgarritasuna, eta BFAko sistemetan lortutako baliabide digitaletan integratzea.

Bestalde, Zugazteleko Informazio Geografiko eta Kartografikoaren ataleko aireko argazki-artxiboa prestatzea, sortzea, katalogatzea, lekualdatzea eta entregatzea. Proiektu honek 2.529 espedienteren eta 44.713 argazki-euskarriren tratamendua biltzen du.

## Digitalizazioa Herrizaingo Sailarentzat

Urritik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak kudeatzen dituen Lan Osasuneko espedienteak digitalizatzeaz arduratzen gara.

## Bilboko Arte Ederren Museoko funts bibliografikoen kontrastea

Bilboko Arte Ederren Museoa funts bibliografiko bat lekualdatzen ari da Madrildik Bilbora.

Dokumentuak Kudeatzeko gure zerbitzutik, jasotako aleak Museoko liburutegiko katalogoarekin alderatzen dira. Horiek egiaztatu ondoren, kutxetan sartu eta paletizatu egingo dira, Zamudiora bidaltzeko.

## AHEBerako digitalizazioa

Irailean hasi ginen Bizkaiko Elizaren Artxibo Historikorako dokumentazioa hainbat formatu eta tamainatan digitalizatzen, Getxoko gure instalazioetatik.



## Mantentze-garbiketa BATen

Irailaz geroztik, Price Waterhouse Cooperren egoitzaren mantentze-lanez arduratzen gara Bilboko BAT ekintzailetza-zentroan. Taldea bost pertsonak osatzen dute: garbiketaren mantentze-lanetako bi eta errefortzuko lanetarako hiru.

## Megaparken mantentzea

Uztailaz geroztik, Megapark merkataritza-parkeko berdeguneak mantentzeko ardura 7 pertsonako talde batek du, horietatik 5 adimen-urritasuna dutenak.

## Igorrek konfiantza berritu du gure garbiketa zerbitzuan

Igorreko Udalak herriko bide garbiketa gure zerbitzu taldearen esku utzi du. Lau pertsonak osatzen dute, eta udalerriaren kanpoaldea garbitzen dute, kale, parke eta lorategi guztiak barne.

Gainera, kirol gune irekiez ere arduratzen dira. Guztira, 224.000 $m^2$ baino gehiago dira.

# BerriakIndustrial




## Presentamos nuestras soluciones industriales en Matelec

Acudimos a la feria Matelec para presentar nuestra oferta multitecnológica y soluciones para toda la cadena de valor del sector de la energía, generación, control, distribución, equipamiento para energías renovables, bienes de equipo y redes inteligentes.

Entre las tecnologías específicas para el sector que mostramos en este encuentro internacional, celebrado en Madrid entre el 15 y el 18 de noviembre, está el cableado, en el que asesoramos técnicamente sobre su diseño e industrializamos los cables, mazos de cable y mangueras. Así como la Electrónica, donde ofrecemos un servicio integral de asesoramiento y diseño, además de la producción y montaje de equipos electrónicos.

En definitiva, hemos presentado nuestras capacidades gracias a la inversión realizada en los últimos años en medios productivos de última generación y sistemas automáticos de control y trazabilidad que garantizan la máxima calidad de los productos.







## Gure zentroetako errotulazioarekin jarraitzen dugu






2018an irudi berri bat estreinatu genuen Lantegi Batuak-en; gure nortasun korporatiboa eguneratu genuen, gure gaitasunekin eta soluzioekin lerrokatzeko, gure egungo eta etorkizuneko errealitatera egokitzeko.

Pandemiaren nahitaezko geldialdiaren ondoren, gure zentroetako fatxadetako errotulazioak eguneratzeari ekin diogu berriro. Azken hilabeteetan Derio, Abadiño, Txibila, Zerbitzuak, Erandio, Etxebarri, Garaetxe, Elekbarri, Zalla eta Zorrotzako zentroetako errotuluak eguneratu ditugu. Gainerako zentroak pixkanaka errotulatzen joango dira 2023an, onartutako inbertsio-planaren arabera.

# Pertsonak

## Garbiketa-zerbitzuko lehen hiztegia zeinu-mintzairan egiten dugu



Ulertzeko eta adierazteko zailtasun gehien dituzten pertsonen beharrei erantzuteko diseinatu da berariaz.

Ulermen- eta ikaskuntza-behar zehatzak dituen langile bati erantzuteko sortu zen proiektu hau. Laguntza behar zuen bere jarduera profesionalean harremanak izateko, baita bere ikaskuntza indartzeko ere. Gainera, tresna hori diseinatuta, garbiketa-taldeko kide guztien arteko komunikazioa bilatzen zen.

Eskuliburuan, piktogramen bidez zein zeinu-mintzairaren bidez, lan-eremuan gehien erabiltzen diren hitzak adierazten dira, zereginak ikasteko, gogo-aldarteak adierazteko, lan-tresnak kokatzeko edo lan-harremanetarako beharrezkoak direnak.

Hiztegia tamaina txikian inprimatuta dago, pertsonek etengabe eraman ahal izan dezaten berekin lanean ari diren bitartean. Gainera, handitu egin daiteke beste premia batzuk sortu ahala.

Hiztegi hau Zerbitzuen arloko unitateko profesional-talde batek egin du, Enplegagarritasunerako Laguntza Zerbitzuko Ianire Barquinen laguntzarekin. Ianire Zeinu-mintzairaren Interpretazioko goi-mailako gradua da.




## Colaboramos con Argia en sus jornadas sobre enfermedad mental

El pasado 25 de octubre participamos en las XIII Jornadas de Intercambio y Sensibilización de Fundación Argia. En el marco de la jornada "Quitar barreras sociales", Sandra de Jesús intervino en la mesa "Afrontemos la realidad: con dignidad, esperanza, coraje y haciendo uso de todos los apoyos de los que disponemos". Sandra compartió su experiencia en las formaciones de Lan Eskola orientadas a capacitar a personas con enfermedad mental.

**Argitaratzailea** Fundación Lantegi Batuak
**Presidentea** Susana Gorbeña
**Zuzendari Nagusia** Ramón Bernal
**Erredakzio Batzordea** Lorea Bilbao, Ana Coria, Olatz Izarra, Izaro Jauregizar, María Marín, Fernando Martín, Martín Muñoz, Óscar Sánchez
**Argazkiak** Lantegi Batuak
**Lege Gordailua** BI-1890-99

Lantegi Batuak erakundeak ez du erantzukizunik izango egileek argitalpen honetan emandako iritzien inguruan, eta ez du zertan beren irizpideekin bat etorri.

**Guri mezuak bidaltzeko:**
Lan Hotsa
Txorierri Etorbidea 12 - 48180 Loiu (Bizkaia)
Tel.944 535 999
**comunicacion@lantegibatuak.eus**

**Email bidez jaso nahi duzu?**

Bidal iezaguzu mezu elektroniko bat comunicacion@lantegibatuak.eus helbidera zure izen-abizenekin eta bidaltzen dizugu.

Lantegi Batuak es una entidad promovida por Gorabide, Asociación Vizcaína en Favor de las Personas con Discapacidad Intelectual.
**www.gorabide.com**

# EzagutuLB

## 13 años dando servicio en la residencia de Orduña



El centro asistencial de Orduña es un claro ejemplo del servicio integral que prestamos en Lantegi Batuak.

Un gran equipo formado por 18 personas se encarga, desde la puesta en marcha del centro en 2009, de dar servicio de limpieza, gestión de cocina, comedor y lavandería los 365 días al año.

Además, una persona se encarga de todo mantenimiento de las instalaciones a diario (cambio de luminarias, reparaciones varias, etc).

El mantenimiento del exterior de las instalaciones está a cargo de nuestro servicio de Jardinería y la brigada móvil se encarga de limpiezas concretas como los cristales de difícil acceso.





### LIMPIEZA

6 personas limpian a diario todas las instalaciones: habitaciones, salas comunes, comedor, centro de día, oficinas y exteriores, incluidos cristales.



### COCINA Y COMEDOR

El equipo de cocina se encarga de preparar las cinco comidas diarias: son las responsables de hacer los desayunos y meriendas y las comidas de los días especiales: cumpleaños, celebraciones varias, etc.

La comida y la cena las suministra nuestro servicio Etxejan, y el equipo de Orduña se encarga de regenerar dichas comidas.

Además, se encargan de la lavandería: limpieza, planchado y marcaje de ropa, entre otras tareas.



# Berriak




## Euskaraldia ospatzen dugu!

Aurten, Lantegi Batuak osoak bat egin du Euskaraldiarekin.

Gizarte osoak parte har dezakeen ospakizuna da Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatzea eta euskara ulertzen eta hitz egiten dutenen artean euskararen erabilera bultzatzea helburu duena.

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean, gure zentro, zerbitzu eta laguntza-arloek bat egin dute ekimenarekin, beren erronkak abian jarriz eta belarriprest, ahobizi eta bihotzgoxo gisa parte hartuz.












## Betaurreko moreak janzten ditugu azaroaren 25ean

Urtero bezala, aurten berriro ere, azaroaren 25eko ekitaldiekin bat egin dugu.

Txibilan, adibidez, betaurreko moreak jantzi zituzten jarrera matxistak ondo ikusteko eta identifikatzeko. Baina beste zenbait zentrotan ere beste ekintza asko ipini zuten martxan, errespetua eta berdintasuna guztion ardura direla ez ahazteko.



## XVII. Gabonetako Postal Lehiaketa

Juan Ángel Martín, Getxoko zentroko lankidea, izan da 2022ko XVII Gabonetako Postalen lehiaketa irabazi duena.

Lan Hotsa talde eta epaimahaiko kideen izenean, zorionik beroenak eman nahi dizkizugu zure postalgatik; eta, eskerrak eman, noski, lehiaketan parte hartu duzuen pertsonei.

Zorionak guztioi!

# Kolaborazioa

EUSKARALDIA




## KOMUNIKAZIOA FUNTSEZKOA DELAKO, HIZKUNTZAK ERDIGUNEAN

LANTEGI BATUAKen izatearen arrazoia da bazterkeria egoeran dagoen jendarteko talde baten enplegagarritasun egokia sustatzea, horrela, aipatu bazterketaren eragina arintzen eta jendarte inklusioa bermatzen laguntzeko. Honela azaltzen du LANTEGI BATUAKek bere zioa: *desgaitasuna duten pertsonei Bizkaian lan aukerak sortzen dizkien irabazi asmorik gabeko erakundea gara. Haientzat inklusioa, ahalik eta garapen handiena eta bizi kalitate onena lortzeko xedea dugu.*

Inklusioa, garapena eta bizi kalitatea hobetzeko, komunikazioan eragitea funtsezkoa da. Izan ere, gainontzekoekin komunikatzea ezinbestekoa da norberaren beharrak ase eta bizitza duina eta osasuntsua izateko; eta ez soilik norberari zer gertatzen zaion adierazi ahal izateko, baizik eta harremanak izan, sozializatu edo ingurukoei ulertu ahal izateko ere.

Komunikazioaz ari garela, hizkuntzen erabilera inklusio prozesuaren erdigunean jarri beharreko aldagaia da; hizkuntzek erabat baldintza dezakete pertsonen arteko komunikazioa eta, are gehiago, nagusiki bi hizkuntza hitz egiten diren lurralde batean. Bizkaitar guztiek ez dituzte euskara eta gaztelania berdin menperatzen eta ohikoa da, hainbat jende, hizkuntza batean bestean baino hobeto moldatzea. Pertsona horientzat errazena eta eraginkorrena hizkuntza horretan komunikatzea da eta, horrenbestez, beren ongizatea ere hizkuntza horrekin lotzen da.

Hain zuzen, LANTEGI BATUAKeko erabiltzaileen (eta familien) artean ere horixe bera gertatzen da, askorentzat lehen hizkuntza gaztelania den bitartean, beste askorentzat euskara da. Ondorioz, bai batzuek eta bai besteek lehen hizkuntza hori guztiz beharrezkoa dute harremanak eraikitzeko, beren testuinguruan integratzeko eta eroso zein ase sentitzeko.

Beraz, kalitatezko enplegagarritasuna, pertsonengan oinarritutako arreta eta babes ereduak osoki garatu ahal izateko, LANTEGI BATUAKek nahitaez erabiltzaile (eta familien) behar eta eskubide linguistikoa kontuan hartu behar ditu. Hori da hain zuzen ere, LANTEGI BATUAK eta AHIZE-AEKren (AEK-ren Hizkuntza Aholkularitza Zerbitzua) arteko elkarlan hitzarmenaren oinarria, Hizkuntzen Kudeaketa Hobetzeko eta Euskararen Erabilera Areagotzeko proiektua diseinatzea eta abiatzea alegia.

Prozesuaren lehenengo fasea udaberrian abiatu zen eta urtarrilean amaituko da. Orain arte hizkuntza egoeraren inguruko behaketa egin da, 16 pertsona, tartean arlo nagusietako arduradunak, elkarrizketatu dira eta hizkuntzen kudeaketaren diagnostiko txostena sortu da. Une honetan, Diseinu Lantaldea hizkuntza politika eta irizpideen proposamena diseinatzen ari da, aipatu taldean zuzendaritzako eta arlo ezberdinetako hainbat kide elkartzen dira, eta bere helburua da ahalik eta ekarpen osatuena, errealena eta eraginkorrena egitea. Urtarrilera itxaron gabe, proiektua bere lehenengo emaitzak ematen hasi da, horren adibidea dira: Korrikan eta Euskaraldian izandako parte hartze handia eta laster etorriko diren beste hainbat berri eta aukera.

**Naroa Jauregizuria Lopategi eta Miren Uriarte Crespo**
AHIZE-AEK-ko hizkuntza aholkulariak.

En primera persona

# Ainhoa Ría y Ion Chertudi




## Juegan en el Gorabide Lehoiak y compiten en la liga adaptada de baloncesto

### ¿Qué trabajo realizáis en Lantegi Batuak?

**Ainhoa:** Yo hice prácticas en el centro de Basauri y llevo allí desde hace 3 años. Monto mascarillas, cables, hacemos pinzas...

**Ion:** Empecé en enclaves haciendo montajes hace más de 20 años y llevo muchos años en jardinería. Me siento muy feliz en mi trabajo porque, además, somos un escaparate. La gente ve nuestro trabajo y nos felicita por él.

### ¿Cuándo empezasteis a jugar en el equipo?

**Ion:** Desde el principio, yo empecé en octubre del año pasado y estoy muy contento, la verdad.

**Ainhoa:** Yo también. Mis padres me lo preguntaron con miedo, creían que no iba a querer. No he hecho nunca deporte, para mí es la primera vez.

### ¿Qué es lo que más te gusta del juego y el equipo?

**Ion:** Me siento muy orgulloso de este equipo. Desde que he entrado estoy muy feliz y orgulloso de mis compañeros. Además, somos muy buenos. Da gusto venir a los entrenamientos, tenemos mucha amistad entre nosotros. Niko y Gorka, además de ser buenos entrenadores, son muy divertidos.

**Ainhoa:** Lo que más, que somos como una familia. Los compañeros son como los hermanos que no tienes. Los entrenadores están haciendo muy buen trabajo, nos animan y nos apoyan. También nosotros tenemos mucho compromiso con el equipo.

### ¿En qué consisten los entrenamientos?

**Ainhoa:** Empezamos corriendo, luego hacemos movilizaciones y practicamos tiros libres.

**Ion:** Luego hacemos un partidillo, así aprendemos jugadas.

### ¿Animaríais a la gente a practicar baloncesto?

**Ion:** Sí, que se metan en el equipo, que no pierdan la oportunidad.

**Ainhoa:** ¡Sí! Merece la pena, que no tengan miedo, el deporte es diversión.

Ion y Ainhoa juegan junto a Suso, Olatz, Irune, Álex, Estíbaliz, Javier y Joana, también de Lantegi Batuak, que nos cuentan:

"Estamos encantados de estar en el equipo, es una forma de hacer deporte y amigos. Somos como una familia, disfrutamos mucho y, además, aprendemos cosas nuevas. Aupa Lehoiak!!!"